GORABIDE

ASOCIACIÓN VIZCAÍNA EN FAVOR DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL
ADIMEN EZINTASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO BIZKAIKO ELKARTEA

boletín/aldizkaria

# berriak

MARZO DE 2013 | 2013KO MARTXOA

Nº 218 Zk.

Licenciado Poza nº 14, 2ª - 48011 Bilbao | Teléfono: 94 443 12 10 | gorabide@gorabide.com | www.gorabide.com
autogestores-gorabide.blogspot.com | tiempolibre-gorabide.blogspot.com | facebook.com/Gorabide | twitter.com/Gorabide

SAIOA INFORMA
SAIOA INFORMAZIOA

**Subvención para útiles de apoyo**
**Foru Aldundiako diru laguntza**
pg. 4 or.



**Formación para resolver conflictos**
**Gatazkak konpontzeko**
pg. 5 or.



**Santa Agueda en Ispaster**
**Santa Ageda Ispasterren**
pg. 7 or.




## Lantegi Batuak genera un valor de 444 millones en cinco años

[ pg. 7 ]

## Lantegi Batuak-ek 444 milioi euroko balioa sortzen du bost urtean

[ 7 or. ]



# Artea + proiektuak Sopuertako egoiliarri adierazpen artistikoan laguntzen die

### *Pintura-lantegien eta Enkarterrietako Museora egindako bisitaldiei esker, Haizea eta Eguzkia egoitzetako 20 erabiltzaileei artera hurbiltzen laguntzen die ekimenak*








**Sopuertako Egoitzako 'Artea +' proiektua adimen desgaitasuna duten pertsona batzuei artera era sortzailean hurbiltzeko bide bat da, erakusketetara bisitaldiak eginez ez ezik, sortze prozesuaren bidez ere bai. Horrela, 20 egoiliarrek adierazpen artistikoa garatzen dute, euren emozioak eta sentimenduak pinturaren bidez adierazteko.**

Ideia sortu zen egoitzak jardueren eskaintza zabaltzeko interesa zuelako eta Enkarterrietako Museoak jende guztiarengana heldu nahi zuelako. Hortik sortu ziren pinakotekan sormena eta adierazpen artistikoa lantzeko lantegiak, talde bakoitzarentzako berariaz prestatutako bisitaldiak, sartzeko hobekuntzak, informazioa erraz irakurtzeko egokitzea eta QR kodeak eta audioa erabiltzea. Orain, lantegiek egoitzan jarraitzen dute. Gorabideko koordinatzaile Ismael Garzónen aburuz, *"plus bat da, artea oso positiboa delako, ekarpen handia egiten duelako; eta plusa da ekarpen zentzuan ere, gure aletxoa jarri dugulako ingurua inklusiboagoa izan dadin"*. Horixe da Artea + izenaren zentzua.

## Artistak

Ekimenaren benetako protagonistak erabiltzaileak dira. Eurei laguntzen dieten profesionalek gozatu egiten dute *"lasaialdi momentuetan; behar dutena adierazten dute eta eurek aukeratzen dute zer egin"*. Horregatik, Begok eta Isak baietz erantzuten dute, artistak diren galdetzen zaienean, eta Abelek *"bale"* esaten du, konformismo kutsu batez. Fernando urrunago doa: artista da *"halaxe naizelako, pintatu behar dudalako"*. Manolok, laguntza behar handiko egoiliarrak, koloreak aukeratzen ditu, gogotsu pintatzen du eta pozik dago lana amaitzen duenean. Haren arreba Mercheren iritziz, *"garrantzizkoa da eurak protagonista sentitzea"*. Ikusten du *"bera berezia dela; eta pozik dago. Eta hunkitu egiten gaitu, sekula egin gabeko gauza batean hazten ikusteak, barrutik zelan hazten ari den nabaritzeak"*.

LECTURA FÁCIL

Sopuertako Egoitzako erabiltzaileak artera hurbiltzen hasi dira, Artea + proiektuaren bitartez. Koadroak pintatzen dituzte eta Enkarterrietako Museora joaten dira bisitan. Museoan hainbat gauza aldatu dira, erakusketak denek ikusi eta ulertu ahal izan ditzaten.




Personas usuarias de Sopuerta visitaron una exposición en Atxarte



Tres autogestores visitaron el Museo de Avellaneda

# El proyecto Arte + ayuda a la expresión artística de 20 residentes de Sopuerta

***Mediante talleres de pintura y visitas al Museo de las Encartaciones, la iniciativa permite acercarse al arte a personas usuarias de las Residencias Haizea y Eguzkia***

**El proyecto Arte + del Servicio Residencial de Sopuerta es una creativa forma de acercar el arte a varias personas con discapacidad intelectual. Pero no sólo con visitas a exposiciones, sino también mediante el proceso creativo. Así, 20 residentes desarrollan su expresión artística plasmando sus emociones y sentimientos a través de la pintura.**

La idea surgió por el interés de la residencia de ampliar su oferta de actividades y el deseo del Museo de las Encartaciones de llegar a todos los públicos. El resultado fueron talleres de creatividad y expresión artística en la pinacoteca, visitas a la carta para cada grupo, mejora de la accesibilidad, adaptación de la información a lectura fácil y uso de códigos QR con audio. Y, ahora, los talleres continúan en el centro residencial. Todo ello, en opinión de Ismael Garzón, coordinador de Gorabide, supone *"un plus por lo positivo del arte, que tanto aporta y un plus en sentido de suma, porque hemos puesto nuestro pequeño grano de arena en la construcción de entornos más inclusivos"*. De ahí el nombre Arte +.

## Artistas

Las verdaderas protagonistas de la iniciativa son las personas usuarias. Sus profesionales de apoyo disfrutan con *"su momento de expansión; expresan lo que necesitan y eligen qué hacer"*. Por eso, Bego e Isa afirman categóricas que sí cuando se les pregunta si son artistas, y Abel responde un conformista *"vale"*. Fernando va más allá y explica que es artista *"porque sí, porque tengo que pintar"*. Manolo, residente con alta necesidad de apoyo, elige los colores, pinta con energía y se muestra satisfecho cuando termina su obra. En opinión de su hermana Merche, *"es importante que se sientan protagonistas"*. Porque vé que *"él se siente especial; se le ve muy contento. Y nos emociona verle crecer en algo que nunca había hecho; percibir su desarrollo personal interior"*.

IRAKURKETA ERRAZA

Las personas usuarias de la Residencia de Sopuerta se están acercando al arte con el proyecto Arte +. Pintan cuadros y van al Museo de las Encartaciones. En el museo han cambiado cosas para que las exposiciones pueda ir a verlas todo el mundo y que cualquiera pueda entenderlas.

# Produktu lagungarrietarako foru diru-laguntzak eskatzeko epea zabalik

Bizkaiko Foru Aldundiak diru-laguntzak eskaintzen ditu, menpekotasun-egoeran dauden edo desgaitasuna duten pertsonek euren autonomia handitzeko produktu lagungarriak erosi ahal izateko: gurpil-aulkiak, ohe egokituak, garbiketarako elementuak, ikusteko edo entzuteko laguntzak, informatikako ekipamendua edo ibilgailuetarako egokitzapenak, besteak beste, baldin eta 2012ko azaroaren 16aren eta 2013ko abenduaren 15aren artean erosi badira.

Laguntza horiek eskatzeko, produktu lagungarri horiek egokitzat jo behar izango ditu txosten tekniko batek eta, behintzat, II. graduko mendekotasun-egoeran egon beharko da edo, gutxienez, % 33ko desgaitasuna izan beharko da aitortuta. Gainera, nazionalitate edo egoitza espainiarra izan beharko da, eta Bizkaiko herriren batean egon beharko da erroldatuta..

## 18 eta 60 urte aurretik...

17 urterekin eta 60 urte bete aurretik, helduaroan edo hirugarren adinean beharrezkoak izan daitezkeen laguntzak planifikatzea garrantzitsua da: minusbaliotasunaren eta mendekotasunaren ebaluazioa, prestazio eta laguntza ekonomikoak, etxebizitzako eta egoitza-bizitzako laguntzak, okupazioa, aisia, babes-neurriak, ezintasun judiziala, etab. Bestalde, garrantzi handikoa da Gorabidek bere zerbitzuen erabiltzaileen datuak eguneratuta edukitzea, besteak beste, dauden beharrizanak ezagutzeko eta, horretan oinarrituta, behar diren zerbitzuak eta prestazioak bultzatzeko eta planifikatzeko.

# Abierto el plazo de solicitud de subvenciones forales para productos de apoyo

La Diputación Foral de Bizkaia ofrece subvenciones para productos de apoyo destinados a aumentar la autonomía de personas en situación de dependencia o que tengan discapacidad. Son subvencionables artículos como sillas de ruedas, camas adaptadas, elementos de aseo, apoyos para ver u oir, equipamiento informático o adaptaciones para vehículos, entre otros, adquiridos entre el 16 de noviembre de 2012 y el 15 de diciembre de 2013.

Para solicitar estas ayudas, es necesario que los útiles de apoyo sean considerados idóneos por medio de un informe técnico, y estar, como mínimo, en una situación de dependencia de grado II o tener reconocida, por lo menos, una discapacidad del 33%. Además, es preciso tener nacionalidad o residencia española, y empadromiento en algún municipio vizcaino.

## Antes de cumplir los 18 y los 60 años...

A los 17 años y antes de cumplir los 60, es importante planificar los apoyos que puedan ser necesarios en la vida adulta o en la tercera edad: valoración de discapacidad y dependencia, prestaciones y ayudas económicas, apoyos de vivienda y vida residencial, ocupación, ocio, medidas de protección como la incapacitación judicial, etc. También es necesario actualizar los datos que Gorabide dispone de las personas usuarias, para conocer las necesidades y expectativas actuales, y poder colaborar en el impulso y planificación de servicios y prestaciones.

## Mendekotasuna baloratuta ez izateak dakartzan arriskuak

**Mendekotasun-egoera baloratua ez izateak ekar dezake egoitza batean lekurik gabe geratzea eta aldi baterako egonaldirik ezin egin izatea edo prestazio ekonomiko batzuk ezin jaso izatea. Deitu SAIOA zerbitzuari.**

## Riesgos de no tener la dependencia valorada

**No tener valorada la Situación de Dependencia puede suponer quedarse sin plaza en una residencia, no poder acceder a estancias temporales o no percibir ciertas prestaciones económicas. Para recibir asesoramiento, contactar con el servicio SAIOA.**

**Servicio SAIOA Zerbitzua**
Centro Ola BBK Zentroa
(Sondika)
**Tel. 94 453 90 86**

SAIOA INFORMAZIOA
SAIOA INFORMA

# Familias desarrollan habilidades y técnicas de comunicación y resolución de conflictos

***Cinco talleres teorico-prácticos organizados por Geuz aportan competencias emocionales, de comunicación eficaz y resolución de conflictos que mejoran la convivencia familiar***

El centro universitario de transformación de conflictos Geuz ha culminado con éxito un trabajo de formación e investigación en el que madres y padres de personas con discapacidad intelectual han adquirido y desarrollado técnicas de comunicación y competencias en resolución de conflictos del ámbito familiar.

En esta iniciativa, llevada a cabo por Eva María Hazas, doctora en Psicología y mediadora, y Lucía Gorbeña, directora de Geuz, han participado once familias de Gorabide, de un total de trece. La formación, de 12 horas, se realizó mediante cinco talleres teórico-prácticos sobre habilidades emocionales, de comunicación eficaz y de resolución de conflictos. Como resultado, las personas participantes consideran que ha mejorado el diálogo y la convivencia familiar.

Las familias también han destacado la función terapéutica del grupo, que les ha permitido compartir información y experiencias de mejora con personas en situaciones similares.

LECTURA FÁCIL

Once familias de Gorabide han hecho un curso para aprender a comunicarse mejor y saber resolver los problemas que puedan tener con su familiar con discapacidad intelectual. Gracias a este curso, ha mejorado el diálogo y la convivencia en casa. Además, han podido aprender unas familias de otras.



# Familiek komunikaziorako eta gatazkak ebazteko trebetasunak eta teknikak garatzen dituzte

***Geuzeko bost lantegi teoriko-praktikoak familia-bizitza hobetzeko gaitasunak eskuratu dira: emozionalak, komunikazio eraginkorrerako eta gatazkak ebazteko***

Gatazkak eraldatzeko Geuz unibertsitate-zentroak arrakastaz amaitu du prestakuntzako eta ikerketako lana; bertan, adimen desgaitasuna duten pertsonen aita-amek komunikazio-teknikak eta familia-eremuko gatazkak ebazteko gaitasunak eskuratu eta garatu dituzte.

Ekimen hau Eva María Hazasek, Psikologiako doktoreak eta bitartekoak, eta Lucía Gorbeñak, Geuzen zuzendariak, jarri dute martxan, eta, bertan, Gorabideko hamaika familiak hartu dute parte, guztira hamahiruk. Prestakuntza 12 ordukoa izan zen eta gaitasun emozionalei, komunikazio eraginkorrari eta gatazkak ebazteko gaitasunei buruzko bost lantegi teoriko-praktikoren bidez egin zen. Parte-hartzaileen ustez, horren guztiaren emaitza izan da familiako elkarrizketa eta bizikidetza hobetu egin dela.

Familiek, gainera, taldearen funtzio terapeutikoa ere nabarmendu dute, eta horrek aukera eman die informazioa eta antzeko egoeran dauden pertsonen hobekuntza-esperientziak partekatzeko.

IRAKURKETA ERRAZA

Gorabideko 11 familiak ikastaro bat egin dute komunikatzen hobeto ikasteko eta adimen desgaitasuna duen familiartekoak izan ditzakeen arazoak hobeto ebazteko. Ikastaro honi esker, hobetu egin da etxeko elkarrizketa eta bizikidetza. Gainera, familia batzuek besteengandik ikasi ahal izan dute.



Fotografía | Argazkia: Joseba Hidalgo

# Donativo de la recaudación de Santa Águeda en Ispaster

***Vecinos y vecinas de la localidad costera nos donan 764 euros de las aportaciones que recibieron por sus cánticos***

El Coro de Santa Águeda de Ispaster ha demostrado la solidaridad de los vecinos y las vecinas de este municipio donando el dinero que recaudaron cantando a la popular mártir al ritmo de las makilas por los barrios de la localidad. El grupo, formado por unas 30 personas de todas las edades, obtuvo 1.270 euros que han repartido entre Gorabide y dos asociaciones de Ispaster. Más allá del dinero recaudado, esta iniciativa es una buena muestra de implicación social y de la importancia que tiene la participación de las personas en la construcción de una sociedad más justa y solidaria.

LECTURA FÁCIL

En Ispaster salieron a cantar a Santa Águeda, y recogieron 1.270 euros. Han donado a Gorabide 764 euros. Es importante que personas como estas se impliquen en mejorar la sociedad.

# Ispasterren Santa Agedako bilketako dohaintza

***Kostaldeko herri honetako herritarrek 764 euroko dohaintza egin dute, kantuz batu zuten ekarpenen bidez***

Ispasterko Santa Agedako Abesbatzak herritarren elkartasuna erakutsi du; izan ere, udalerriko auzoetatik makilen erritmoaz egindako kantaldiaren bidez batu zuten dirua dohaintzan eman dute. Taldea adin guztietako 30 bat pertsonak osatzen dute. 1.270 euro batu zituzten, eta Gorabideren eta Ispasterko beste bi elkarteren artean banatu dute diru hori. Batutako dirua alde batera utzita, ekimen hau daukaten gizarte inplikazioaren erakusgarri da, bai eta pertsonen partaidetzak gizarte bidezkoagoa eta solidarioagoa egiteko daukan garrantziaren erakusgarri ere.

IRAKURKETA ERRAZA

Ispasterren Santa Ageda kantuan irten ziren, eta 1.270 euro batu zuten. Gorabideri 764 euroko dohaintza egin diote. Garrantzitsua da herritar hauek bezala, gainerakoak ere gizarte hobearen alde lan egiteko ahalegina egitea.

# Seminario sobre innovación social

Mirko Gerolin, director del Departamento Técnico y de Sistemas de Gorabide, ha participado como ponente en un encuentro sobre cómo gestionar la innovación en las organizaciones del tercer sector, organizado por Fundación EDE. Bajo el título *Innovación: la enzima necesaria para que una organización evolucione*, abordó varias claves de la mejora continua en entidades del ámbito social. Por su parte, Juanjo Lacasta (Feaps) trató el impacto del modelo de calidad de vida en la gestión, y Blanca Alarcia (RBT Consulting) repasó los elementos clave para innovar.

# Gizarte berrikuntzari buruzko mintegia

Mirko Gerolin, Gorabideko Sail Tekniko eta Sistemen zuzendaria, EDE Fundazioak antolatutako topaketa bateko hizlari izan da, eta hirugarren sektoreko erakundeetan berrikuntza zelan kudeatu azaldu digu. *Berrikuntza: erakunde baten bilakaerarako beharrezko entzima* izeneko hitzaldian gizarte arloko erakundeetan etengabeko hobekuntzarako zenbait gako aztertu zituen. Bere aldetik, Juanjo Lacastak (Feaps) kudeaketako bizi kalitatearen ereduaren eraginaz mintzatu zen, eta Blanca Alarciak (RBT Consulting) berrikuntzarako gako nagusiez hitz egin zuen.



## Lantegi Batuak-ek 444 milioi euroko balioa sortzen du bost urtean

Desgaitasuna duten pertsonentzako zentroetan inbertitutako euro publiko bakoitzeko, Bizkaian 6,35 euro itzuli dituzte. Horrela, Lantegi Batuak-ek sortutako balio sozioekonomikoa 444 milioi eurora igo zen 2007. eta 2011. urteen artean. 62,1 milioiko diru-laguntza publikoa jaso eta 184 milioi euro baino gehiago itzuli zituen. Zifra horiek EHUko Enpresari Aplikaturiko Ekonomiaren Institutuaren azterlan baten ondoriozkoak dira. Azterlana metodologia berriaren bidez egin zen, eta, bertan, errentagarritasunezko finantza-parametroak ez ezik, balio integratua eta erakundeak interes-taldeei ematen diena aztertzen ere du.

### Balio kualitatiboa

Lantegi Batuak-en oinarrituta badago ere, azterlana ikerketa aplikatuko proiektu gisa planteatzen da, eta horren metodologiak modu objektiboan hartu, irudikatu eta balioztatu dezake joera sozialeko edozein enpresa-ekimenen jarduera. Neurtutako parametro batzuk dira zuzeneko eta zeharkako balio sozioekonomikoak, administrazioei sortutako aurrezki edo itzulkin ekonomikoa, familiei ematen zaien balio soziala edo jasotako diru-laguntzak eta laguntzak.

## Lantegi Batuak genera un valor de 444 millones de euros en cinco años

Cada euro público invertido en centros para personas con discapacidad genera en Bizkaia un retorno de 6,35 euros. Así, el valor socioeconómico de Lantegi Batuak fue de 444 millones de euros entre 2007 y 2011. Teniendo en cuenta que recibió 62,1 millones en subvenciones públicas, su retorno económico superó los 184 millones de euros. Este es el resultado del estudio realizado por el Instituto de Economía Aplicada a la Empresa de la UPV/EHU, con una metodología que analiza el valor integrado y lo que reporta la organización a sus grupos de interés, y no sólo la rentabilidad.

### Valor cualitativo

Este estudio centrado en Lantegi Batuak se plantea como un proyecto de investigación aplicada cuya metodología puede objetivar, visualizar y poner en valor la actividad de cualquier iniciativa empresarial de corte social. Para ello, mide el valor socioeconómico directo e indirecto, el ahorro o el retorno económico generado a las administraciones, el valor social aportado a las familias o las subvenciones y ayudas recibidas.

## LABURRAK BREVES

### Día del Árbol de Iberdrola

25 personas usuarias del club de tiempo libre Alaiak participaron en el Día del Árbol de Iberdrola, el sábado 23 de febrero, en la zona Almike de Bermeo. Esta iniciativa forma parte de un proyecto de la Fundación Lurgaia para la recuperación forestal de los bosques de Bizkaia con árboles y arbustos autóctonos.

### Iberdrolaren Zuhaitz Eguna

Alaiak astialdi-taldeko 25 erabiltzailek Iberdrolaren Zuhaitz Egunean parte hartu zuten otsailaren 23a larunbatean, Almiken (Bermeo). Ekimen hau Lurgaia Fundazioaren proiektuaren zati bat da; fundazioak Bizkaiko bertoko zuhaitzak eta zuhaixkak berreskuratzea lortzeko lan egiten du.

### Libro Blanco de la Discapacidad

Edeka ha presentado el 'Libro Blanco sobre la Discapacidad en Euskadi', un diagnóstico de la situación de las personas con discapacidad en nuestro entorno y una visión de las alternativas que permitan avanzar hacia la inclusión, la aceptación de la diversidad, igualdad de oportunidades y la accesibilidad universal.

### Desgaitasunaren Liburu Zuria

Edekak *Euskadiko Desgaitasunari buruzko Liburu Zuria* aurkeztu du; gure ingurunean desgaitasuna dutenen egoeraren diagnostikoa da, eta inklusiorako, aniztasunaren onarpenerako, aukera berdintasunerako eta irisgarritasun unibertsalerako aukera ematen duten alternatiben ikuspegia ematen du.

Gorabide es una asociación sin ánimo de lucro orientada a dar apoyo a las personas con discapacidad intelectual de Bizkaia y a sus familias, con la misión de mejorar su calidad de vida desde un compromiso ético y promoviendo una sociedad más justa y solidaria.

Gorabide irabazi-asmorik gabeko elkartea da, eta helburu du Bizkaian adimen desgaitasuna dutenen eta beren familiartekoen bizi-kalitatea hobetzea, konpromiso etikoa oinarri hartuta, eta gizarte bidezkoagoa eta solidarioagoa sustatzen.











# Tres residentes de Plazakola reciclan los marcapáginas del 50 aniversario haciendo imanes

La creatividad que hay en la Residencia Plazakola de Markina ha quedado demostrada con una curiosa iniciativa: convertir marcapáginas sobrantes del 50 aniversario en originales imanes. La idea surgió como una forma de reutilizar materiales que, de otra manera, habrían acabado en la basura: los propios marcapáginas y cierres de neveras recogidos en el garbigune. Fernando Calzacorta, Javi Portillo, Eneko Atutxa y Joseba Goiricelaya han realizado esta actividad, con el apoyo de Agustín García, el profesional impulsor de la idea. El resultado servirá para adornar su residencia y el resto de centros de Gorabide.

# Plazakolako 3 egoiliarrek 50. urteurreneko orriak markatzekoak birziklatu eta imanak egin dituzte

Markinako Plazakola Egoitzan dagoen sormena agerikoa da. Soberan zeuden 50. urteurreneko orriak markatzekoak hartu eta imanak egin dituzte. Materialak berrerabiltzeko ideia moduan sortu zen, zakarrontzira bota beharko ziren orriak markatzekoak eta garbigunetik jasotako hozkailuen itxigailuak erabilita. Fernando Calzacortak, Javi Portillok, Eneko Atutxak eta Joseba Goiricelayak egin dute jarduera hori, Agustín Garcíaren laguntzarekin, ideiaren bultzatzaile izan zen profesionalarekin. Imanek egoitza eta Gorabideko gainerako egoitzak apaintzeko balioko dute.

# agenda marzo martxoa



## FORMACIÓN FAMILIAR / FAMILIEN PRESTAKUNTZA

**FAMILIAS DE ESCOLARES / ESKOLA-UMEETAKO FAMILIAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
**Día / Eguna** 26 martes / astearte — **Hora / Ordua** 18:30

**FAMILIAS DE ADOLESCENTES / NERABEETAKO FAMILIAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
**Día / Eguna** 25 lunes / astelehena — **Hora / Ordua** 18:30

**FAMILIAS DE JÓVENES / GAZTEETAKO FAMILIAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
**Día / Eguna** 14 jueves / osteguna — **Hora / Ordua** 18:30

**FAMILIAS DE ADULTOS/AS / HELDUETAKO FAMILIAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
**Día / Eguna** 21 jueves / osteguna — **Hora / Ordua** 18:30

## AUTOGESTORES / AUTOGESTOREAK

**JÓVENES | GAZTEAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
**Día / Eguna** 5 martes / astearte — **Hora / Ordua** 18:00

**LOS VETERANOS**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
**Día / Eguna** 6 miércoles / asteazkena — **Hora / Ordua** 18:00

**LOS ELEGANTES**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
**Día / Eguna** 20 miércoles / asteazkena — **Hora / Ordua** 18:30

**GURE AHOTSA**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
**Día / Eguna** 27 miércoles / asteazkena — **Hora / Ordua** 18:30

## AGRUPACIONES / ELKARTEAK

**BUSTURIALDEA** Comisión / Komisio
*Kultur Etxea. Foru Plaza - Gernika*
**Día / Eguna** 13 miércoles / asteazkena — **Hora / Ordua** 18:30

**DEUSTO-SAN IGNACIO** Junta / Batzorde
*Club Solas-Etxe. Luzarra, 24 - Deusto*
**Día / Eguna** 5 martes / astearte — **Hora / Ordua** 19:30

**ERMUA** Junta / Batzorde
*Aldapa, 2-bajo A/etxabe A - Ermua*
**Día / Eguna** 4 lunes / astelehena — **Hora / Ordua** 19:30

**MUNGIALDEA** Comisión / Komisio
*Atxurizubi, 12 - Mungia*
**Día / Eguna** 5 martes / astearte — **Hora / Ordua** 20:00

**SANTURTZI** Comisión / Komisio
*Sabino Arana, 20-22 - Santurtzi*
**Día / Eguna** 27 miércoles / asteazkena — **Hora / Ordua** 19:00